

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 9/2015 Foru Dekretua, martxoaren 10ekoa, hainbat tributu arautegi aldatzen dituena

Foru dekretu honek arautegi hauek aldatzen ditu: finantza kontu, eragiketa eta aktiboen, eta atzerriko ondasun eta eskubideen berri eman beharra arautzen duen arautegia; sozietateen gaineko zergaren arautegia; pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia; fakturazioaren inguruko betebeharren arautegia.

Finantza kontu, eragiketa eta aktiboen, eta atzerriko ondasun eta eskubideen berri eman beharrari buruzko arautegian aldaketa hau egin da: elkarren laguntzaren eremuko finantza kontuen berri eman beharra ezartzen da.

Sozietateen gaineko zergaren arautegian hainbat aldaketa egin dira: batetik, oraindik aurrera kasu jakin batzuetan enpresek eta erakundeek ikerlarien Gizarte Segurantzako kotizazioetan aplikatzen dituzten hobariak eta ikerketa eta garapen jarduera batzuegatik eta berrikuntza teknologikoko jarduera batzuegatik aplikatzen dituzten kenkariak bateratu ahal izango dituzte; bestetik, ekintzailletza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezia eta mozkinak nibelatzeko erreserba berezia kalkulatzeko kontuan eduki beharreko zerga oinarria argitu da.

Halaber, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia aldatzen da okerreko erreferentzia batzuk zuzentzeko. Azkenik, fakturazioaren inguruko betebeharren arautegia aldatzen da arautegian egin diren azken aldaketetara egokitzeko.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra eta atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra arautzen duena, aldatzea.

Artikulu berria ezartzen da abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuan, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen, eta atzerriko ondasun eta eskubideen berri eman beharra arautzen duenean, 2 bis artikulua; hona testua:

“2 bis artikulua. Elkarren laguntzaren eremuko finantza kontuen berri eman beharra.

1. Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorak, Arabako zergenak, 1. artikuluko 2. idatz zatian eta 29 bis artikuluan xedatzen duenaren arabera, finantza erakundeek aitorten informatiboa aurkeztu behar dute irekita dituzten finantza kontuez aplikatzen zaien elkarren laguntzaren arautegian zehazten diren kasu jakin batzuetan.

2. Aurreko idatz zatian aipatzen diren kontuei dagokienez, eta elkarren laguntzaren arautegia aintzat hartuta, finantza erakundeek kontu horien titularitatea edo kontrola duten pertsonen egoitza identifikatu behar dute (edo nazionalitatea, kasu batzuetan) arautegi horretan ezartzen denarekin bat etorriz. Identifikazioa nola egin Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak xedatuko du foru agindu baten bidez.

3. Informazio hau eman behar da: elkarren laguntzaren arautegian ezartzen denaren arabera eman beharreko datuak eta, ezinbestean, kontu bakoitzaren identifikazio osoa eta beraren titularitatea edo kontrola daukan pertsonaren izen-abizenak (erakundea bada, izen osoa) eta, behar izanez gero, identifikazio fiskaleko zenbakia edo antzekoa.

4. Aitorpena egiteko eredia Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez onartuko da.”

Bigarrena. Aldatzea abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretua, sozietateen gaineko zergaren arautegia onartzen duena.

Abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretua, sozietateen gaineko zergaren arautegia onartzen duena, aldatzen da; hona aldaketak:

Bat. Zortzigarren xedapen gehigarria eransten da; hona:

“Zortzigarrena. Hobariak ikerlarien Gizarte Segurantzako kotizazioetan.

1. Mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertainentzat bateragarriak izango dira ikerlarien Gizarte Segurantzako kotizazioetan aplikatu ditzaketen hobariak (ekainaren 13ko 475/2014 Errege Dekretua, ikerlarien Gizarte Segurantzako kotizazioetan aplikatzen diren hobariei buruzkoa) eta ikerketa eta garapen jarduera batzuegatik eta berrikuntza teknologikoko jarduera batzuegatik aplikatu ditzaketen kenkariak (abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua, sozietateen gaineko zergarena, 62. eta 63. artikulua).

2. Gainerako enpresa eta erakundeentzat ere bateragarriak izango dira ekainaren 13ko 475/2014 Errege Dekretuan arautzen den hobaria eta aurrean aipatutako kenkarien araubidea, baina baldintza hau betez gero: ezin zaizkio aplikatu ikerlari berari. Halakoetan, enpresek ondoko hauetako bat aplikatzea hautatu ahal izango dute: hobaria Gizarte Segurantzako kotizazioetan, hain zuzen ere aurrean aipatutako errege dekretuko 2. artikuluan aipatzen diren langileei dagokiena, edo langile horiek aritzen diren proiektuetan abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 62. eta 63. artikuluetan aipatzen dituen jarduerak eginez eragiten dituzten kostuei dagokien kenkaria.

Aurreko paragrafoan ezartzen denarekin bat etorritik, enpresek batera aplikatu ditzakete ikerlari batzuen hobariak eta kenkari eskubidea ematen duten proiektu bereko beste ikerlari batzuei dagokien kenkariak.

3. Aldi berean hobariak eta kenkariak aplikatzen dituzten erakundeek eta enpresek urtean egindako jardueren, burututako proiektuen eta hobaria aplikatutako ikerlarien memoria aurkeztu beharko dute, zerga administrazioak eskatuz gero.”

Bi. Bederatzigarren xedapen gehigarria eransten da; hona:

“Bederatzigarrena. Zuzenketak emaitzaren aplikazioan.

Zergaren Foru Arauko 52. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan eta 53. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan ezartzen diren mugak zerga oinarriari aplikatutako zaizkio, hain zuzen ere foru arau horretako IV. tituluko V. kapituluaren ezartzen denaren arabera emaitzen aplikazioan egin beharreko zuzenketak aplikatu aurreko zenbatekoari.”

Hirugarrena. Aldatzea abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretua, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren arautegia onartu duena.

Abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren arautegia onartzen duena, aldatzen da; hona aldaketak:

Bat. 74. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Zergaren Foru Arauko 105. artikuluan xedatzen diren hautapenak direla eta, zergadunek ondorioak sortu behar dituzten zergaldiko autolikidazioa aurkeztean egin behar dituzte. Gero, jarraian azalduko diren epealdietan aldatu ahal izango dira:

– Aurrean aipatutako 105. artikuluko a), d), e), f) eta g) letretan aipatzen diren hautapenak Zergaren autolikidazioa nork bere borondatez aurkezteko epealdian egin daitezke, edo bestela zerga administrazioak behin-behineko likidazioa egin arte, lehenago gertatzen bada.

– 105. artikuluko b) eta c) letretan aipatzen diren hautapenak autolikidazioa nork bere borondatez aurkezteko epealdia amaitutakoan aldatu ahal izango dira, zerga administrazioak errekerimendurik egin ezean.”

Bi. Bigarren xedapen gehigarria aldatzen da eta honela geratzen da:

“Bigarrena. Inbertsio funts kotizatueta partaidetzak eta kapital aldakorreko inbertsioko indize sozietate kotizatuen akzioak.

Zergaren Foru Arauko 48. artikuluko 1. idatz zatian ezartzen den geroramendua ezin aplikatu izango da kotizatzen duten inbertsio funtsetako partaidetzak edo mota bereko sozietateen akzioak itzultzen edo eskualdatzen direnean, ez eta harpidetzen edo eskuratzen direnean ere (funts eta sozietate horiek uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onartutako azaroaren 4ko 35/2012 Legearen, talde inbertsioko erakundeei buruzkoaren, arautegiko 79. artikuluan arautzen dira).”

Laugarrena. Aldatzea maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretua, fakturazioaren inguruko betebeharren arautegia onartzen duena.

Maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretua, fakturazioaren inguruko betebeharren arautegia onartzen duena, aldatzen da, hain zuzen ere 26. artikuluko 1. idatz zatia; honela geratzen da:

“1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek jarduera ekonomikoen birtartez etekinak lortzen badituzte, jardueran ari direla egiten dituzten eragiketen fakturak egin behar dituzte, eta haien kopiak ere bai, arautegi honetan ezartzen denarekin bat etorritik, balio erantsiaren gaineko zergaren ordainketarako aplikatzen zaien araubidea gorabehera.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Edonola ere:

– Foru dekretu honetako lehenengo artikuluan aipatzen den 2 bis artikuluan arautzen den informazioa eman beharra ez da eskatuko harik eta aplikatzen den elkarren laguntzako arauan ezarri arte.

– Foru dekretu honen bigarren paragrafoak aipatzen dituen sozietateen gaineko zergaren arautegiaren aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera abiarazitako zergaldietarako hasiko dira ondorioak eragiten.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 10a

Diputatu nagusia

JAVIER DE ANDRÉS GUERRA

Ogasun, finantza eta aurrekontu saileko diputatua

AITOR URIBESALGO LORENZO

Ogasun zuzendaria

JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO